



LAUDIOKO

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI KALEJIRA

ZATOZ IKASTOLAREKIN PARTE HARTZERA

Basalarrina Euskal Topaguneak Neguko solstizioaren jaiak prestatu ditu herriko ikastetxeekin batera eta Audio Udalaren babesarekin. Aste honetan zehar programa oparoa eskainiko dute:

ABENDUAREN 19an
OLENTZEROREN LAGUNAK ikaste-
txetan goizean zehar

ABENDUAREN 20an
IKAZKINAREN JAIA Ugarteko pla-
zan 18:00etan.

ABENDUAREN 21ean
SUKALDARITZA tailerra Basalarrina
elkartean: "Polboroiak eta turroiak".
11:00etan.

ABENDUAREN 22an
NEGUKO AZOKA Aldai plazan
10:00etatik.
12:00etan **Ikastolako dantza taldearen emanaldia.**
13:00etan Marrazki lehiaketaren sari
banaketa.

ABENDUAREN 23an
MITOLOGIA MUSIKATUA "Amelie
ipuinen jostune" Basalrrinan 17:00etan

ABENDUAREN 24ko KALEJIRAREN
ANTOLAKETA ETA IBILBIDEA:

Kalejiran Olentzero eta Mari Domingirekin parte hartzen animatu zareten guztiok, abenduaren 24an 17:45ean Instituto ondoan dagoen Alarma dendako bihurgunean baserritarrez jantzita bilduko gara, denborarekin ondo kokatu ahal izateko.

Ikastolako taldea Lamuza eskolaren



Neguko Solstizioaren jaiak

ABENDUAK

atzean sartuko da kalejirara, bi multzo osatuz:

HAUR HEZKUNTZA eta haien familien taldea alde batetik ilaratan kokatuko dira.

Beste multzo batean Lehen hezkuntza eta DBHko ikasleak familiarekin kokatuko dira. Ikasleek ere binaka ilarak osatuko dituzte eta familiek haien inguruan ilarak sortuko dituzte.

Plazara heltzerakoan, besteetan bezala, Olentzero eta Mari Domingi agurtzeko aukera egongo da, igotzen lehenak kalejiran parte hartu duten ikasleak izango dira, ilararen txanda errespetatuz.

BAKARRIK JOANGO DIREN IKASLEAK:

Protagonistak agurtzeko ilaratan itxaroten gaudela aprobetxatuz, bakarrik parte hartu duten ikasleen familiak haien seme-alabarengana hurbildu behar dira. Eta haiekin batera ilaran itxarongo dute.